



OLARRIZU 2017

Donostia, 2017ko martxoaren 28a
olarrizu@zurriolaikastola.net

OLARRIZUREN EGOERA- 2017

Aurrekariak:

Aurretik sortuta bazegoen ere, 2011. urtean hartu genuen Olarrizu berriz martxan jartzeko ardura.

Garai hartan, gurasoek antolatzen zituzten jarduerak batak bestearekin erlaziorik ez zuten batzordeen esku zeuden. Hori dela eta Artezkaritzak batzorde guzti horien koordinazioa eta elkarlana sustatzeko asmoz, organikoki elkartu zituen Olarrizuren baitan, hain zuzen ere, helduen danborrada, umeen danborrada, maiatzeko festa, ekaineko festa, santo tomas festa eta zurrimendi lan taldeak.

Denbora honetan, batzorde bakoitzak bere ibilbidea jorratu du, batzordekide berriak sartu dira taldeetan eta araudi berriak sortu dira. Bestalde, Olarrizun baitan, koordinazio bilerak egin dira, batzorde bakoitzak bere kudeaketaren berri eman zezan, lanerako irizpideak ezartzeko eta batzordeen artean eta artezkaritzarekin koordinazioa bermatzeko.

Bestalde, Olarrizu gisa ikastolako gurasoei zuzendutako hainbat bilera informatibo egin dira.

Une honetan, Olarrizu Elkartearen lehendakaria Imanol Esnaola dugu, altxor-zaina Kristina Zabala eta idazkaria Nora Urreizti.

Burututako lana (2011-2017) :

Denbora guzti honetan batzordeetan lan handia egin da.

Umeen danborrada:

Ainhoa Elosegiren gidaritzapean, urte hauetan zehar jantzi berriak egin dira, danborradako parte hartzeko araudia sortu da, zozketak era publiko eta gardenean egiten dira, neska-mutilen arteko berdintasuna bermatzen duten neurriak ezarri dira, materialaren gordailua aldatu da...

Umeen danborradako batzordea orain bi urte berritu zen. Ainhoa Elosegik, urteetan zehar lanean aritu ondoren, txanda eman zion ama gazte taldeari: Ainara Fernandez, Nagore Acero, Karmele Aiestaran, Miren Sanchez, Olatz Jauregui eta Leire Erzilbengoa.

“Guztiok, guztiona, guztiontzat”



OLARRIZU 2017

Donostia, 2017ko martxoaren 28a

olarrizu@zurriolaikastola.net

Finantziarioari dagokionez, parte hartzen duten familiei, umeko XX €ko kuota eskatzen zaie eta Udalak diru-laguntza bat ematen du, hortaz, sortutako gastua bermatuta dagoela esan dezakegu, autonomoak direla, hain zuzen ere.

Helduen danborrada:

Azken urteetan Artezkaritzak eta Helduen danborradako batzordekideek hainbat desadostasun izan dituzte danborrada kudeatzeko erabilitako irizpideen inguruan.

Olarrizun bidez hasiera batean, eta Artezkaritzak zuzenean ondoren, batzordekide hauekin adostasuna lortzeko ahaleginak egin ziren arren ezinezkoa izan da eta aurten, artezkaritzak, batzordekide berriak izendatzeko deialdia luzatu zuen ikastolako bazkide guztien artean. Ondorioz, une honetan batzorde berri bat dugu buru-belarri 2018ko danborrada prestatzen.

Batzordekide hauek, artezkaritzak ezarritako irizpideak (gardentasuna kudeaketan eta berdintasuna parte hartzeko garaian) errespetatzen dituen araudi berri bat sortu du, oraingoz, behin behineko izaera badu ere.

Kide berriak, Oihana Uria, dira.

Finantziarioari dagokionez, azken urteetako egoera dela eta ez dugu datu zehatzik. Parte hartzaileei kuota bat eskatzen zaie urtero eta udaletxeko diru-laguntza jasotzen dute. Hori nahikoa litzateke sortzen diren gastuei aurre egiteko, beraz, lan-talde hau ere ekonomikoki autonomia izan beharko luke.

Zurrimendi:

Badira urte batzuk, Aitor Larrañagak Zurrimendiren ardura hartu zuela. Bere gidaritzapean, mendi irteeren egutegia ikasturte hasieratik dugu eskura ikastolako web orrian eta hilean behin parte hartzeko gonbitea jasotzen dugu, horrela eskatu dugunok.

Txango hauetan parte hartzen duen familien kopurua oso handia da eta giro bikaina izaten da bertan.

Zurrimendik ez du berezko sarrerarik eta gastua oso murrizta da. Urtero, umeen parte hartzea saritzeko, azaroan banatzen diren dominak/opariak erosteko egiten den gastua besterik ez.

Euskara Batzordea:

“Guztiok, guztiona, guztiontzat”



OLARRIZU 2017

Donostia, 2017ko martxoaren 28a
olarrizu@zurriolaikastola.net

Orain 3 urte sortu zen batzorde berri hau. Euskararen ezagutza maila handitu den arren, erabilera nabarmen jaitsi izanak kezkatzen zituen guraso hauek.

Hori dela eta jarduera batzuk burutu dituzte, hain zuzen ere, euskararen erabilerarako dekalogo bat sortu eta argitaratu zuten, hainbat jardueretan euskararen erabilera neurtu dute eta ikastolako jarduera batzuetan kartelak ipini dituzte, besteak beste.

Batzorde honek ere ez du diru-sarrerara propiorik eta egiten diren gastuak Olarrizuren kargu egin dira.

Santo Tomas:

Garai batean, Santo Tomas festaren kudeaketa irakasleen esku zegoen. Gurasoek haien gidaritzapean antolatzen zuten Txofreko postua. Aukera ezin hobea gurasoak elkarren artean ezagutu eta giro ona sortzeko.

Ondoren, Xabier Linabek hartu zuen antolaketaren ardura eta urte askotan horretan aritu da.

Denbora guzti honetan, materialen inbentarioa egin da, plantxa berria erosi da eta antolaketa mailan hobekuntza nabarmenak izan dira.

Santo Tomaseko txosnan izandako diru-sarrerak, gastuak ordaindu ondoren, Olarrizuren baitan gelditzen dira.

Maiatzeko festa:

Maiatzeko festa, Imanol Esnaola, Kristina Zabala eta Nora Urreiztik osatutako lan taldearen ardurapean dago.

Urte mordoa horretan aritu dira LHko 4. mailako gurasoekin harremanetan jarri, lan taldea sortu eta festa polita prestatzen.

Denbora honetan, hainbat berrikuntza eta hobekuntza egin diren arren, festaren egitura, oro har, bere horretan mantendu da. Karpa berria erosi da, materialak gordetzeko leku aproposa lortu da, elektrizitateko kaxa berria jarri da eta beste hainbat berrikuntza egin dira urteroko antolaketaren baitan.

Festa eguna arrakastatsua izan da, familia ugari hurbildu dira urtero, baita, irakasle, langile eta ikasleak ere. Denera, 1.500 pertsona inguru antolatutako ekintza eta jardueretan parte hartzen.

Bazkaltzeko garaian jangelako profesionalek prestatutako otordua eskaintzen zen eta taberna ere ipintzen zen. Bertan, bokatak eta edariak saltzen genituen eta honek giroa egun osoan zehar mantentzen laguntzen zuen, familiak ikastolan gelditzen baitziren egun pasa.

“Guztiok, guztiona, guztiontzat”



OLARRIZU 2017

Donostia, 2017ko martxoaren 28a

olarrizu@zurriolaikastola.net

Festa finantzatzeko 5 euroko sarrera eskatzen zen. Hortaz gain, tabernako etekinak ere nabarmenak ziren. Hortaz, urtero, ikastolako festak sortutako etekinekin sortutako gastuak ordaindu eta ekaineko festa finantzatu da.

2016an ordea, Eusko Jaurlaritzaren Lege bat dela medio, ikastetxeetan alkohola edatea, saltzea eta banatzea galarazita gelditu zen.

Horrek, 2017ko festaren egitura egokitu beharra sortu zuen. Ikastolako baliabideekin antolatutako jarduera gehienak bere horretan mantendu dira baina gastua suposatzen zuten ekintza gehienak saihestu behar izan dira.

Festa, oro har, arrakastatsua izan dela esan dezakegu, parte hartzea mantendu da eta giro polita egon da.

Dena den, bazkaltzerako garaian familia gutxi izan dira bertan eta tabernaren martxa besteetan baino murriztagoa izan da, eguerdian giroa apaldu egin dela esan dezakegu.

Finantziarioa ere egokitu egin behar izan da. Ez zen sarrerarik kobratu eta, horren ordez, festa bideragarria izan zedin, familia bakoitzari bost euroko kuota kobratu zitzaion alde aurretik. Kuota honen ordainketa borondatezkoa izan zen eta familia gehienek onartu zuten.

Bestalde, tabernaren sarrerak ez ziren handiak izan eta guztira etekina lortu zen arren, oso murrizta izan zen.

Azkenik ezin dugu aipatzeke utzi parte-hartzeari buruz dugun kezka. Ikastolarekiko inplikazioa, oro har, galtzen joan dela iruditzen zaigu. Orain urte batzuk, bi gela artean antolatzen zen maiatzeko festa. Azken urteetan, ordea, 3 geletako gurasoei erregutu egin behar izan zaie parte hartzea.

Guretzat oso garrantzitsua zen beste euskarrietako bat ere galdu egin dugu, hain zuzen ere, ikastolako jangelatako profesionalen lankidetzak. Ikastolako festaren eguna, aproposa izaten zen gurasook haien bazkari goxoak dastatzeko eta bide batez, sukaldariei gure esker ona adierazteko. Haien partaidetzaren galera, garrantzitsua izan da guretzat, kolektibo hau festatik nolabait kanpo gelditu baita.

Ikastolako festa ikastola osatzen dugun guztion pertsonen arteko harremana sendotzeko eta ikastola bera ezagutarazteko egiten hasi zen. Gure Ikastolaren nortasunaren baitan dago gurasoen partaidetza aktiboa bultzatzea, besteak beste, kooperatiba izaerari esker.

Gaur egun, ikastola osatzen dugun kolektiboen jarrera aldatzen ari dela ukaezina da eta hausnarketa bat merezi du, kontu guzti honek. Gurasoen parte-hartzeko aktiboa sustatzen

“Guztiok, guztiona, guztiontzat”



OLARRIZU 2017

Donostia, 2017ko martxoaren 28a

olarrizu@zurriolaikastola.net

jarraitu behar al da? Ikastolako festa antolatzen jarraitu behar da? Gurasoek antolatu behar dute? Zertarako?

Ekaineko festa:

Maiatzekoa amaitu bezain laster, ekaineko sardina jana prestatzen genuen batzordekideek, DBH 2ko gurasoekin batera.

Festa honen oinarria sardinak eta sagardo kupelak ziren eta ikasturteari amaiera aproposa ematen zitzaion, ikasleen dantzak, apar-festa eta dantzaldiarekin.

Festa honetako gastuak, maiatzeko festaren etekinarekin ordaintzen ziren.

Finantziazio eza eta egutegi arazoak direla eta aurten ez da ekainean festarik izan.

Olarrizu:

Azken urteetan Olarrizuren estatutuak berri egin dira, web orrian batzorde guztien informazioa argitaratu da, Olarrizuk esteka propioa duelarik, bilera informatiboak egin dira, elkartearen nondik norakoak azaltzeko, batzarrak ere egin dira elkarteari dagozkion erabakiak hartzeko ... Azken finean, informazioa eta parte hartzeko aukera bazkide guztien eskura ipintzen saiatu gara.

Guzti hau ikastolako bazkide guztien partaidetza aktiboa sustatzeko helburuarekin egin da, inplikazioa bilatuz, Ikastolaren leloak dioten bezala, ikastola guztiok, guztiona, guztiontzat baita.

Hori lortzeko funtsezkoa iruditu zaigu bazkideek informazioa eskura izatea eta gardentasunez jokatzeko, eta horretan saiatu gara diptikoak zabalduz, kartelak eginez, zirkularrak bidaliz, bilerak eta batzarrak burutuz eta gurasoen inizatibak lagunduz, horra hor, Jazz Band-a adibidez.

Gaur egungo egoera:

“Guztiok, guztiona, guztiontzat”



OLARRIZU 2017

Donostia, 2017ko martxoaren 28a

olarrizu@zurriolaikastola.net

Olarrizuren ardura dugun lan taldeak jarduera hau uzteko erabakia hartu dugu. Urte asko izan dira, jarduera guzti hauek antolatzeke ahaleginean. Batzuetan asmatuko genuen eta besteetan ez, baina beti egin dugu gogo onez.

Lan taldeei dagokionez, Zurrimendi eta danborradetako batzordeak osatuta daude, eta lanean dihardute buru-belarri. Euskara Batzordean ere lanerako prest dauden kideak baditugu.

Festetako eremuan, ordea, erreleboa bilatzea ezinbestekoa da, baita, Olarrizu beraren egituraren ere bai, kargu berritzea egin beharko baita hurrengo batzarrean.

Finantza eremuari dagokionez, garai batean, festetan lortzen ziren etekinak ikastolaren kontu korrontera zihoazen eta han galtzen ziren. Olarrizu biziberritu zenean batzorde bakoitzari kontu korronte bat ireki zitzaion eta kontabilitatea eramaten hasi ginen gardentasuna bermatuz.

Urteko kontuak egin ondoren sortu izan diren etekinak ikastolaren beharrak asetzeko erabili izan dira, ordenagailuak erosi, umeen bidaien prezioak murriztu, karpa eta sukalde berria erosi ...

Gaur egungo egoeran, ordea, festak ez du etekinik ematen eta ezinbestekoa litzateke finantziario modu berriak aztertu eta garatzea, festa eta beste hainbat jarduera bideragarriak egin nahi badira behintzat.

Hortaz, Olarrizu Guraso Elkarteak erronka itzela du bere aurrean. Horretarako prest dagoen lan talde bat sortu ezker, elkarteak ikastolaren inguruan hainbat eremu garatzeko aukera paregabea du, kultura, guraso eskola, aisia, euskara, beste ikastetxeekin harremana eta beste hainbat arlotan lan egin daiteke.

Erronka honi eltzeko ezinbestekoa da erreleboa egitea, ilusioz jarduteko, ekintza eta ideia berriei ateak irekitzeko, bazkide guztien inplikazioa areagotzeko.

Ez dugu lortu, ordea, era naturalean errelebo hori gauzatzea, hona hemen gure azken erronka!!